

AZAROAREN 4KO MANIFESTAZIOA

TOKIAN TOKI SUSTATZEKO GIDALIBURUA

Aurkibidea

Sarrera	1
Kartelak eskatzeko	2
Eskuorriak eta pankartak	2
Sare sozialetarako edukiak.....	2
Hitzaldiak eta aurkezpen publikoak	3
Elkarretaratzeak eta ekimen kulturalak	3
Autobusak antolatzeke	3
Udaletan adierazpenak edo mozioak.....	3
Atxikimendu argazkiak eta bideoak	3
Email bidalketak	4
Bestelako ekimen posibleak.....	4

Sarrera

Azkenaldian areagotu egin dira auzitegietatik euskararen sustapena eta normalizazioa helburu duten hainbat neurriren aurkako sententziak: Uliazpi, Laudio, Barakaldo, Irun, Uharte, Erandio, Berriozar, Aurrabia, Orkoi... Eta epe laburrean espero ditugun beste asko.

Argi dago ez direla sententzia isolatuak, baizik eta botere judizialek hizkuntza politika aurrerakoiak mugatzeko eta herritarron hizkuntza eskubideak murrizteko joera gorakorra: oldarraldi bat. Izan ere, sententzia guztien elementu komun bat dut: gazteleraren nagusitasuna ezartzea herritarron hizkuntza eskubideen gainetik, eta beraz, oinarritzko eskubideen kaltetan.

Horregatik, azaroaren 4ko manifestazioa euskalgintzak deitu duen arren, hizkuntza aniztasunean, justizian eta berdintasun sozialean sinesten duten pertsona eta kolektibo guztiei deia egiten diegu oldarraldiaren aurrean euskararekin bat egitera, euskaraz bat izatera.

Gidaliburu honetan azaroaren 4an Bilboko kaleak betetzeko tokian toki eta sektorez sektore manifestazioaren zabalpena egiteko oinarritzko informazio, baliabide eta ideiak jasotzen dira.

Guztion indarra beharko dugu oldarraldiaren aurrean herritar guztion eskubideen aldeko erantzun sendoa emateko. Denon artean egingo dugu!

Manifestaziora deitzeko zein giroa berotzeko ekimen eta ekintza komunikatibo ugari egin daitezke. Hemen ideia sorta bat jasotzen dugu. Ahal den heinean, saiatu herriko, auzoko edo eskualdeko euskalgintzarekin eta norbanako euskaltzaleekin elkarlanean antolatzen, indarrak biderkatzeko!

Manifestaziorako informazio, baliabide eta materialak webgune honetan jasotzen joango gara (kartelak, inprimatzeko euskarriak, sare sozialetarako edukiak eta bestelakoak):

kontseilua.eus/azaroak4

Kartelak eskatzeko

Kalean, espazio publikoan, lantokian, ikastetxean edo beste edozein tokitan jartzeko kartelak nahi badituzue, eskatzen duzuen tokira helaraziko dizkizuegu. Kartelak nahiko handiak dira, B2 tamainakoak, hotz, 50x70cm-koak. Nahi beste eskatu ditzakezue, soberan ditugu eta.

Kartelak eskatzeko bete galdetegi hau: <https://labur.eus/a4kartelak>

Tamaina txikiagoan nahi badituzue, zuen kabuz inprimatzeko PDF formatuan deskargatu dezakezue [HEMEN](#).

Eskuorriak eta pankartak

Eskuorriak eta pankartak norberak egin beharko ditu. Eskuorriak [HEMEN](#) jaitsi ditzakezue PDF formatuan, eta edozein fotokopistegitan inprimatu ahal dira A4 tamainan (folio normala); ondoren, orriak erditik moztu behar dira.

Pankartak giteko plantilla [HEMEN](#) jaitsi daiteke.

Sare sozialetarako edukiak

Sare sozialetarako formatu eta tamaina ezberdinetara egokitu dugu kartela. Jaisteko sakatu irudien gainean.



Instagram / Facebook / Whatsapp

[Jaitsi hemen](#)



Instagram Stories

[Jaitsi hemen](#)



Karratua

[Jaitsi hemen](#)



Horizontala

[Jaitsi hemen](#)



Hitzaldiak eta aurkezpen publikoak

Manifestaziorako deialdia egiterakoan, ahal den heinean, herriko, auzoko edo eskualdeko euskalgintzako eragileen arteko lankidetzaz eta komunikazio zuzena hobesten dugu, indarrak saretzeko eta biderkatzeko. Eragile hauek izan daitezke euskara elkarteak, euskaltegiak, ikastolak, guraso elkarteak, euskal sindikatuak, norbanako euskaltzaleak eta abar.

Kontseiluak ez du gaitasun humanorik herri guztietan hitzaldiak emateko. Horregatik, oldarraldiaren inguruko hitzaldiren bat edo manifestazioaren aurkezpen publiko bat egin nahi izanez gero, euskalgintzako beste eragile edo norbanakoengana jotzea eskertuko dugu. Hemen [KARTEL EDITAGARRIA](#).

Elkarretaratzeak eta ekimen kulturalak

Tokiko eragileen giroa berotzeko elkarretaratze edo ekimen kultural bat antolatu nahi izatekotan, esteka honetan aurkituko dituzue kartelak diseinatzeko baliabideak: [KARTEL EDITAGARRIA](#).

Oharra: Euskalgintzaren Kontseiluak antolaketan zuzenean parte hartzen ez duen ekimen eta ekitaldiek ezin izango dute Kontseiluko logoa edo marka erabili. Eragile bakoitzak berea jarri beharko du.

Autobusak antolatzeko

Herri, auzo edo eskualdetik Bilbora joateko autobusak antolatzeko asmoa edo beharra dagoen kasuetan, inguruko euskalgintzarekin harremanetan jartzea eta elkarrekin antolatzea hobesten dugu. Herri bakoitza arduratu beharko da gastuak ordaintzeaz, baina zenbait tokitan udalei autobusa jartzeko eskaerak egin dira euskara teknikari edo zerbitzuen bidez. Autobusak deskargatu eta aparkatzeko tokia lortzen ari gara, ziurrenik San Mames estadioaren aurrean.

Jada autobusa antolatuta dagoenean, koordinazio lanak errazteko jakinarazi mesedez formulario hau betez: <https://labur.eus/a4autobusak>

Arazorik balego, idatzi ondorengo emailera: komunikazioa@kontseilua.eus

Udaletan adierazpenak edo mozioak

Uztailaren 13an, Konstituzio Auzitegiak EAEko Udal Legearen aurka emandako sententzia salatzeke alkate, udal hautetsi eta euskalgintzako ordezkariekin egin genuen agerraldiaren ostean, hainbat udaletan adierazpen edo mozioak aurkeztu ziren epaia salatu eta azaroaren 4ko manifestazioarekin bat egiteko.

Norabide berean, aukera ikusten den udaletan adierazpen edo mozioak aurkeztu daitezke, tokiko euskalgintzak bultzatuta eta ahalik eta alderdi politiko gehienek babesa lortzea helburu. Alderdi bakarraren babesa lortzeko arriskua dagoenean, adierazpenik ez aurkeztea hobetsiko da.

Jaitsi hemen [ADIERAZPEN EREDUA](#).

Atxikimendu argazkiak eta bideoak

Eragile edo elkartetik, zein norbanako gisa, manifestazioari atxikimendu publikoa eman nahi izanez gero, bi aukera proposatzen ditugu:



1. Argazkiak atera, taldean edo banaka, kartela eskuetan.
2. Bideoa grabatu, taldean edo banaka, atxikimendua emanez eta manifestaziora joateko arrazoi bat adieraziz.

Zuen sare sozialetan igo dezakezue *#A4DenokBilbora* edo *#EuskararekinBat* traolak erabiliz eta “Euskalgintzaren Kontseilua” etiketatuz. Gainera, komunikazioa@kontseilua.eus emailera bidaltzen badiguzue, guk geuk ere igoko ditugu.

Argazki herrikoia egiteko deialdi irekia egiten baduzue, jakinarazi goiko emailean eta guk ere deialdia zabaltzen lagunduko dugu.

Email bidalketak

Bazkideen edo harpidetuen email zerrendak dituzten elkarte/eragileen kasuan, ohiko buletin edo bidalketetan deialdiaren mezutxo bat txertatu daiteke, edo email oso bat bidali manifestaziora joateko eta zabalpenean laguntzeko gonbitarekin.

Bestelako ekimen posibleak

- Manifestaziorako elkartearen kartel propioa sortzea eta zabaltzea
- Sareetako edukiak sortzea, imajinazio apur batekin
- Hedabideetara iritzi artikulua edo prentsa oharra bidaltzea (tokiko euskalgintzaren atxikimenduari, adibidez)
- Kontseiluaren sare sozialetako mezuak zabaltzea (hau beti 😊)

Bestelako proposamen, ekarpen edo ideiarik izanez gero, bidali mesedez komunikazioa@kontseilua.eus helbidera. Eskerrik asko, eta animo!